

EUSKARA IKASLEAREN HIZTEGIA

Ibon Sarasola

VOX

Aurkibidea

Sarrera gisa	VII
Hiztegia	1
Eranskina.....	841

Atarikoak.

Begien bistakoa da, *VOX oinarrizko hiztegia*-ren atarikoetan esaten genuenez, azken urteotan euskarak bizi duen eguneratze eta normaltze prozesua. Irakaskuntzan, helduen euskalduntze-alfabetatzeetan, hedabideetan, literatura sorkuntzan, itzulpengintzan eta abarretan urrats sendoak egin ditu gure hizkuntzak eguneratze eta normaltze ahalegin horretan. Bestalde, gero eta pertsona gehiagok, nork bere mailan eta era batera edo bestera, harreman estua dute euskararekin. Eta euskal hiztun eta euskara ikasle horiek beren premiak betetzeko tresna eraginkorragoen eske ari dira, gero eta areago.

Horien artean, nabaria da euskara ikasten ari direnen kasua. Maila bat iritsiez gero ez dute aski hiztegi elebidunekin, eta nahitaezkoa dute, hizkuntza sakon ikasiko badute, hiztegi elebakar baten laguntza. Izan ere, hiztegi elebakarrak soilik emango die euskal hitz eta esapideen berri bere hartan, beste hizkuntza baten makuak gabe eta euskal hitz altxoraren egituraren barnean kokaturik.

Premia berri horiei erantzun nahiz, lehen hiztegi elebakarrak hasi ziren argitaratzen gure artean duela urte gutxi: *Adorez* saileko hiztegi elebakarrak lehenik, *Euskararako Hiztegia*-tik hasi eta horietako azkenarekin, *Europa hiztegia*-rekin buka; eta beste alde batetik, Eskoriatzako Irakasle Eskolako *Lehen hiztegia*, oraindik orain *VOX*-en eskutik bigarren argitalpena izan duena.

Dena dela, K. Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*-k eta hura ontzeko pilatu eta egituratu ziren hiztegi langaiek nabarmen eraberritu dute euskal hiztegi gintza. Langai horiek erabiliaz idatzi zen *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, eta haren ildotik etorri dira beste zenbait euskal hiztegi elebakar: *Lur* eta *Elhuyar* entziklopedien hiztegi alderdiak lehenik, eta haien ondotik bi etxe horien gainerako hiztegiak. Bi hiztegi sail horiekin euskal hiztegi gintzaren belaunaldi berri bat plazaratu da, oinarri berri eta fidagarriagoetan oinarritua dagoena. Belaunaldi horretakoa da, orobat, hemen aurkezten dugun *Euskara Ikaslearen Hiztegia*.

Euskara Ikaslearen Hiztegia ere, hainbat urtez landu nuen *Hauta-Lanerako Euskal hiztegia*-ren seme da. Hura baino laburragoa da eta, gorago aipatu ditugun premien

ildotik, azken mailetakoa euskara ikasleei edo euskara tituluen azterketak prestatzen ari direnei dator eskainia. Hortaz, *Hauta-Lanerako Euskal hiztegia*-ren alderdi filologiko eta diakronikoa ia erabat desagertu dira *Euskara Ikaslearen Hiztegia*-tik, eta sarrera bakoitzean adierak era ulerterraz eta erabilgarriagoan antolatu dira. Nolanahi ere, *Hauta-Lanerako Euskal hiztegia*-ren izpiritua eta mamiaren alde garrantzizkoena gorde dugu, nahiz definizioetan, nahiz erabilera ereduaren eta adibideen fidagarritasun eta ugaritasunean. Beste alde batetik, *Euskal Hiztegia*-rekin eta *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren ale argitaratuekin osatu eta zuzendu da *Euskara Ikaslearen Hiztegia*. Orobat, Euskaltzaindiak ofizialki onartu dituen Euskal Herriko udaletako eta munduko estatuetakoa eta horien hiriburuetakoa herritarren izenak hiztegiratu ditugu, garrantzizkoenak bederen. Bestalde, Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua*-ren zati argitaratua, K letraraino, osorik aintzat hartua izan da *Euskara Ikaslearen Hiztegia*-n, eta baita gure Akademiak azken urteotan eman dituen erabaki eta gomendioak ere. Hauetakoa asko, oharren eta laukien bidez eman dira, euskara ikaslearen lagungarri. Hortaz, uste dugu tresna eraginkorra izango dela *Euskal Ikaslearen Hiztegia*, gorago aipatzen genuen ikasleen eta, oro har, euskara sakonago ikasi nahi duten hiztunen eskuetan.

Irizpide orokorrak.

Arreta berezia jarri dugu *Euskara Ikaslearen Hiztegia*-n, azken urteotan euskara idatziak oro har, eta ondorioz euskara ikasteko metodoek eta euskal hiztegiek, erakusten duten gaztelaniaren eragina –eta, askotan, gazteleniarekiko morrontza-saihesten. Azken urteotan, gainera, halako zilegiztatze teorikoa eman nahi izan zaio morrontza horri, hizkera «berezituak» eta terminologiagintzak eskatzen omen duen zehaztasunaren izenean.

Aski da Europako hizkuntzen praktika terminologikoa aztertzea, ikusteko terminoen zehaztasunaren printzipio hori oso badaezpadako kontua dela. Esaterako, euskal terminologo batzuek *vena* sartu nahi dute euskara teknikoan *zain*-en ordez, *zain* arrunta eta polisemikoegia omen delako. Baina latin hizkuntzek eta ingelesak, gorputz ataletatik bihotzera itzultzen den odola daramaten hodiak izendatzeko, are anatomia terminologian, *vena/veine/vein* etab. erabiltzen dituzte; hau da, odolaren zirkulazioa aurkitu aurretik odol hodiak izendatzeko erabiltzen zuten hitz arrunt polisemikoa erabiltzen dute. Orobat egiten beste hizkuntzak: alemanak (*Ader*), nederlanderak (*ader*), danierak (*(blod)are*), polonierak (*zyla*), txekierak (*zila*), hitz arrunt polisemikoak erabiltzen dituzte horretarako, eta orobat beste hainbat hizkuntzek. Hortaz, gainerako hizkuntzek bezala jokatzekotan, odol hodiak oro har izendatzeko betidanik erabili dugun *zain* polisemikoa –gehienera jota (*odol*) *zain*– erabili behar genuke, bueltan datorren odola daramaten hodiak izendatzeko.

Bena-ren kasua, noski, ez da bakarra. *Euskara batuaren ajeak* liburuan horrelako adibide asko eman nituen, baina nabarmenak soilik aipatuko ditut hemen. Adibidez *oleo*. Aski da hiztegiak miratzen hasia ikusteko ez dagoela hizkuntzarik, espainola alde batera utziz gero, frijitzeko gaia eta margolaritza teknika bereizten dituenik: frantsesez frijitzekoa *huile* da, eta *huile* orobat margolariena; ingelesez bata *oil* eta *oil* bestea; alemanez *Öl* eta *Öl*; *olie* eta *olie* danieraz, eta *olja* eta *olja* suedieraz, errusieraz *máslo* eta *máslo*, *olej* eta *olej* polonieraz eta txekieraz... Espainolak bakarrik bereizten ditu *aceite* eta *óleo*. Ildo beretik, «errefuxiatuak» direla eta, alemanez *Flüchtling*, nederlandera *vluchteling*, danieraz *flygtende*, suedieraz *flykting*... –hots, «iheslaria»–, espainolezko «refugiado», «fugitivo» eta are «prófugo»-ren kide dira, ez dituzte adigai horiek bereizten, eta gauza bera gertatzen da txekierazko *uprchlík*-ekin eta serbo-kroazierazko *izbjeglica*-rekin; ildo beretik, errusieraz «errefuxiatu politiko» *emigrante politiko* esaten da.

Era berean, espainolezko *bodegón* eta frantsesezko *nature morte* gauza bera dira, eta germaniar hizkuntzek azkenaren antzeko zerbit, bizi *geldia* gutxi gorabehera (alemanez *Stilleben*, ingelesez *still-life*, nederlandera *stilleven* etab.) erabiltzen dute. Orobat, ia hizkuntza guztiek hitz bera erabiltzen dute gaztelaniazko *lenteja* eta *lente*-rentzat, eta baita *crystalino* begikoarentzat ere: alemanezko *Linse* edo txekierazko *čočka*, esaterako, orobat dira landarea, lupakoa edo begiko zatia; ingelesak bi bereizten ditu, *lentil*, landarea, eta *lens*, lupakoa eta begikoa, eta bi frantsesak, *lentille*, landarea eta lupakoa, eta *crystallin*, begikoa. Espainolak bakarrik ditu hitz bana, *lenteja* landarearentzat, *lente* lupakoarentzat eta *crystalino* begikoarentzat.

Ildo beretik, *luzera/longitude* bereizketa ez da nazioartekoa. Frantsesak *longueur/longitude* bereizten ditu, eta orobat ingelesak *length / longitude*. Baina germaniar eta eslabiar hizkuntzek hitz «arrunta» erabiltzen dute geografian nahiz astronomian: alemanez *Länge*, *luzera*-ren kidea, orobat nederlandera *lengte*, danieraz *længde*, suedieraz *längd*, txekieraz *délka*, polonieraz *długosc* eta abar. Errusieraz «espazio luzera» eta «denbora luzera» bereizten dituzte hizkera arruntean, eta horietatik denbora luzera, *dolgotá*, erabiltzen dute geografia eta astronomia luzerarako. Hortaz, ez dago arrazoi handirik zehaztasunaren izenean *longitude* erabili «behar» izateko. Orobat, geografian, gaztelaniaz soilik erabiltzen da *sierra*. Frantsesez *chaîne de montagnes* itzultzen dute, italiano *catena di montagna* eta ingelesez *mountain range*. «Itzuli» esan dut, Frantzian, Ingalaterran eta abarretan ez baitago «sierra»-rik. Hots, adigai –edo irudia– bera da hemen espainola. Askotan gertatzen da hori geografia terminologian: *macizo*, esaterako, frantseseko *massif*-etik espainolera igarota da, eta ingelesez, frantsesezko *massif* eta *mountain mass* erabiltzen dituzte, eta orobatsu alemanez (*Gebirgs*)*massiv* eta *Gebirgsstock*; hots, mendigune –edo mendi masa– aski genuke euskaraz. Eta *meseta*, frantsesez eta ingelesez *plateau* dena, *Hochebene* da alemanez, *højslette* danieraz, *högslätt* suedieraz, hau da, *goi ordokia* besterik gabe, txekierazko *náhorní rovina* bezalaxe.

A

a¹ [a]. *iz.* Euskal alfabetoko lehen letra; letra horren izena.

a² *interj.* Oi!

aaiundar. *izlag. eta iz.* 1 Aaiungoa, Aaiuni dago-kiona. || *iz.* 2 Aaiungo biztanlea.

aba. *iz.* Elizgizonen titulua, izen-deituren ondoan ezartzen dena. *SIN.* **aia**; **anaia**.

ababor. *iz.* Ontziaren ezkerrekoa, brankara begiratuz. *ANT.* **istribor**. *Ababorrean ur zulo bat dago.*

abade. *iz.* 1 Gizonezkoentzako monasterio bateko burua, apaizteko esku duena. *Ik.* **abadesa**. *Leireko abadea.* 2 Apaiza.

abadegai. *iz.* Apaizgaia.

abadesa. *iz.* Emakumezkoentzako monasterio bateko burua.

abadetasun. *iz.* 1 Abadetza, abadearen kargua eta egitekoa. 2 Apaizgoa.

abade(tu), abadetzen. *da-du ad.* 1 Monasterio bateko buru bihurtu. 2 Apaiztu.

abadetza. *iz.* 1 Monasterio bateko buruaren kargua eta egitekoa. 2 Apaizgoa.

abadia. *iz.* Abade edo abadesa baten gidaritzapeko monasterioa edo eliza. *Fraidetegia abadia bilakatu zen.*

abadina. *iz. ipar.* Legatza.

abadinar. *izlag. eta iz.* 1 Abadinokoa, Abadinori dagokiona. || *iz.* 2 Abadinoko biztanlea.

abagadune: erabil: **abagune**.

abagune. *iz.* 1 Zerbaitetarako unea, egokiera, aukera, besterik adierazten ez bada ona. *SIN.*

parada, okasio. *Abagunearen zain. Atertu duenez gero, egurasteko abagunea dugu.* 2 Denbora bitartea.

abaila. *iz.* Abiadura, oldarra. *Abaila hartu. Abailan joan. Bere bizikiletarekin, abaila gorrian, auto baten kontra joan da.*

abail(du), abailtzen. *da-du ad.* 1 Guztiz nekatu, leher egin. *Abailtzen zaituen pisua.* 2 *Abail eginda:* guztiz nekaturik. 3 *goi.* Fruituaren pisuaz (zuhaitzak, adarrak) makurtu. *Ale gorritz abailduta sagarrak.*

abakando. *iz.* Itsas oskoldun hamar-oina, otarrainaren antzekoa baina aurreko hankak hagin

handiz hornituak dituena (*Hommarus gamma-rus*).

abako. *iz.* 1 Aritmetikako oinarriko eragiketak egiteko taula boladuna. 2 Zutabe baten kapitularen goialdea, ohol gisakoa.

abandona(tu), abandonatzen. *du ad.* Bazterrerara, alde batera utzi; eskutik utzi; bertan behera utzi; utzi. *SIN.* **utzietsi**.

abangoardia. *iz.* 1 Talde armadun batean, aurrean doan zatia. *SIN.* **aurrealde**. *Abangoardian joan. Gudarostearen abangoardia.* 2 *Langile klasearen abangoardia. Abangoardia ertia, higikundea:* bere ausartasunagatik aintzindari gertatzen dena edo gertatu uste duena.

abaniko. *Ik.* **haizemaile**.

abant. *iz.* • *Abant egin:* arraunean aurrerantz egin. *Egizu abant!* • *Abantean:* arraunean aurrerantz eginez.

abantada. *iz.* Bultzada, abiada.

abantaila. *iz.* 1 Norbaitek edo zerbaitek edozein aldetatik duen lehentasuna edo nagusitasuna; zerbaitetan lehentasuna edo nagusitasuna ematen duen zera; norbaitek edo zerbaitek ateratzen duen aurrea. *SIN.* **bentaja**. *Abantaila eraman (lehiaketa batean, edertasunean...).* 2 *Onura, hobaria, probetxua, pribilegioa. Zerbaitetatik abantaila atera.* 3 *Ororentzako legeetatik at, gizabanako edo talde bati emaniko eskubide edo onura. Aitoren semeen abantailak. Abantaila hartaz gabetua izatea.*

OHARRA: Abantaila hartu, kendu: erabil: aldea hartu, kendu.

abantailatsu. *izond.* Abantailaz betea. *Egoera abantailatsuan.*

abantar. *izlag. eta iz.* 1 Abantokoa, Abantori dagokiona. || *iz.* 2 Abantokoa biztanlea.

abantzu. *adlag. ipar.* Ia. *SIN.* **hurren**. *Abantzu bi ure baditu. Abantzu hila.*

abantzu izan. *da ad. ipar.* Hil hurran izan, hil zorian egon. *Ikusiz abantzu nintzela sorterrira ekarri ninduten.*

abao. *iz.* Abaraska.

abar. *iz.* 1 Zuhaitz edo zuhaixka adarra. *Haritz abarra. Abar txikia.* *SIN.* **adaxka**. 2 *pl.* Berezk.,

egur bezala erabiltzen dena. **Abarak biltzen.** **3** Balio gutxioko gauza. **4** Hondakina. *Ikatz abararak.*

eta abar. Ik. **eta.**

abaraska. *iz.* **1** Erleek, ezta gordetzeko, erlauntzaren barnean argizariz prestatzen dituzten hexagono formako zulo txoen multzoa. **SIN.**

abao; orraze¹. *Eztia darion abaraska.* **2** Liztorrek eta beste zenbait animaliak egiten dutena.

abaritz. *iz.* Artearen antzeko zuhaitz edo zuhaixka (*Quercus coccifera*). **SIN.** **txapar.**

abarizti. *iz.* Abaritz basoa.

abarka. *iz.* Euskal Herrian erabili ohi den larruzko (eta egun baita ere gomazko) oinetakoa, batez ere oinaren azpialdea babesten duena, soka baten bidez zangoaren behealdean lotzen dena. *Abarrak jantzi. Abarrak josi.*

abarka handizuren. Erdi Aroan Nafarroan, jaunen baten mendeko ez zen nekazaria.

abarkadun. *izond. eta iz.* Abarkak erabiltzen dituen, baserritarra (gehienetan gizarte klasetzat hartua, gutxiesgarria). *Abarkaduna izan arren, guk adinako eskola zuen.*

abarkagile. *iz.* Abarkak egiten dituen eskulangilea. *Abarkagilearen tresnak.*

abarkagintza. *iz.* Abarkak egiteko jarduna.

abarketa¹. *iz.* Espartina.

abarketa². *adlag. ipar.* Abar bila.

abarketari. *iz.* Bizibidez abarketak egiten dituen eskulangilea.

abaro. *iz.* Zuhaitzpeko babesgunea, ganaduak eguzkitik gerizatzeke erabiltzen duena. *Alboko abaro baten babesera.*

abaro egin. Ganaduak abaroan biao egin. *Non egiten du abaro araldeak?*

abaroan (egon, eduki). Itzalpean (egon, eduki). *Abaroan daude behiak.*

abarotsu. *izond.* Itzaltsua.

abarraki(tu), abarrakitzen. *du ad.* Suntsitu, hautsi, desegin, apurtu, puskatu.

abarrezta(tu), abarreztatzen. *du ad.* Abarrez estali.

abarrika(tu): erabil: **abarraki(tu).**

abarrots: erabil: **harrabots.**

abartsu. *izond.* Abar asko duena, abarrez betea. **SIN.** **adartsu.** *Hiru intxaurren abartsuren azpian.*

abar(tu), abartzen. *da ad.* **1** Zuhaitz edo zuhaixka bati abarrak ernatu. **2** Oreinaren adar abartuak. **3** **SIN.** **adarka(tu).** *Damurik, oraino, hainbeste aldaxketara da abartua sasitzerainokoan gure euskara zaharra!*

abasberuan: erabil: **abespeluan.**

abasto. *adlag.* Ugari.

abat. *iz.* Abadea, monasterio bateko burua.

abata. *iz.* **1** Ehitzariet zuhaitz gainean usoak zelatatzeko egiten duten behatokia. **2** Usoak erakartzeko edo jaitzarazteko erabiltzen den zurezko hegazti irudia.

abatari. *iz.* Uso ehizan, usoen etorreraren berri ematen duen mutila.

abatetxe. *iz.* **1** Abadia. **2** Erretore etxea.

abatx. *iz.* Gaztagintzan eta esnearen gatzaketan erabiltzen den zurezko ontzia, bi euskarri dituen, kaikua eta goporra baino handiagoa.

abazuza: erabil: **babazuza.**

abdika(tu), abdikatzen. *du ad.* Erregetza utzi.

abdomen. *iz.* Sabelaldea.

abe: erabil: **abemaria.**

abegi. *iz.* Harrera. *Inori abegi on egin.*

abegitsu. *izond.* Abegi on egiten duena.

abelazkuntza. Ik. **abere hazkuntza.**

abelbide. *iz. ipar.* Abere ibiltariet erabiltzen duten bidea. **SIN.** **altxonbide.**

abelburu. *iz.* Abere burua, abere multzo bateko banako bakoitza. **SIN.** **buru.** *Ehun abelburu. Abelbururik ederrenak.*

abeldun. *iz.* **1** Abere jabea. Ik. **abeltzain.** *Abelduna da baina ez abeltzaina.* **2** Zaldizkoa.

abelera. *iz.* Egoera.

abeletxe. *iz.* Abereak gordetzen diren edozein toki babestu edo estalpetu, baserritik berezia. **SIN.** **abeltegi.** *Abeletxe batean jaito zen.*

abelgorri. *iz.* Behiaren motako aberea. *Abelgorria esaten zaie zezen, idi, zekor, idisko, behi, bigantxa, txahal eta behi taldeari darraizkion osterrantzekoei. Nork bere abelgorriarekin, sagardoa baserritik erostunarengana eramaten.*

abelgorriki. *iz.* Abelgorri okela. *Abelgorriki eskaria.*

abeltegi. *iz. batez ere ipar.* Ukuilua, abeletxea. *Elizak abeltegi bilakatu ziren.*

abeltzain. *iz.* Abereak zaintzen dituen pertsona, berezki bizibidez. Ik. **abeldun.** *Abeltzain ibili zen bost urtez. Nagusiak abeltzain egonarazi zuelako.*

abeltzaintza. *iz.* Abeltzainaren bizibidea, abereak zaintzeko lanbidea edo jarduna. *Bere semeak abeltzaintzan zirela.*

abeltzantza: erabil: **abeltzaintza.**

abel xehe: erabil: **abere xehe.**

abemaria. *iz. pl.* Angelus-aren deia eta ordua, berezki arratsaldekoa. **SIN.** **agurmaria.** *Dantzabemarietan geratzen da.*

abemarietako. *iz.* Abemarietako ordua edo joaldia. *San Blasko kanpaia ari zen jotzen Abemarietako.*

abenda. *iz.* Giza arraza.

abenderri. *iz.* Nazioa.

abendo: erabil: **abendu**¹.